



2002/09/19ko prentsa-oharra

EZKONTZEN ESTATISTIKA (EZKE)2002ko lehen hiruhilekoa

2002KO LEHEN HIRUHILEKOAN, GEHIAGO IZAN ZIREN EZKONTZA ZIBILAK, ERLIJIOZKOAK BAINO

2002. urteko lehen hiru hilabeteen, ezkontzak % 11,4 gutxitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Ohikoa denez, urteko lehen hiruhilekoan ezkontza gutxi egiten da, batez ere urtarril-otsailetan. Euskal AEn 968 ezkontza izan dira, hau da, 2001eko laugarren hiruhilekoan egindakoen erdia, eta 2001eko lehen hiruhilekoan egindakoak baino 126 gutxiago (% -11,4), Eustaten datuen arabera.

Aurreko urteetan geratu den bezala, ezkontza zibilen ehunekorik handiena hiruhileko horretan izan da, erlijiozko ezkontzak baino gehiago izan baitira; beraz, badirudi gertaera hori sendotu egin dela. Herrialde historikoka, arabarrek egin ospatu zuten ezkontza zibil gehien (% 64), eta, ondoren, bizkaitarrek (% 64) eta gipuzkoarrek (% 58). Aitzitik, Autonomia Erkidegoaz kanpo bizi arren erkidego honetan ezkondu zirenei dagokienez, ehuneko hori % 48koa baino ez zen izan.


2002ko lehen hiruhileko horretako 968 ezkontzetan, bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten 927 gizonezko eta 957 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 840 senarrentzat (% 90,6), lehen ezkontza izan zen; 14 alargun eta 93 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Lehen ezkontza zuten emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino txikixeagoa izan zen: aurretik ezkongabeak zirenak 861 izan ziren; alargunak, 9; eta dibortziatuak, 87.

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, % 71k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, ehuneko horrek % 55,9 hartu zuen. Kopuru horiek aurreko urteko hiruhileko berekoak (% 69,5 eta % 52,5, hurrenez hurren) baino handiagoak dira; eta, era berean, 2001. urteko gainerako hiruhilekoetan izan zirenak baino altuagoak dira.

	2002ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2001eko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EZKONTZAK	968		1.936		1.093	
Kanonikoak	404	41,7	1.136	58,7	483	44,2
Zibilak	564	58,3	800	41,3	610	55,8
SENARGAIK	927		1.862		1.057	
Ezkongabea	840	90,6	1.737	93,3	950	89,9
Alarguna	7	0,8	16	0,9	14	1,3
Dibortziatua	80	8,6	109	5,9	93	8,8
EMAZTEGAIK	957		1.915		1.084	
Ezkongabea	861	90,0	1.788	93,4	1.000	92,3
Alarguna	9	0,9	18	0,9	5	0,5
Dibortziatua	87	9,1	109	5,7	79	7,3

Iturria: EUSTAT

Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria 100= b.b.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganuza Zabalo Tel.: +34-945 017 534 Faxa: +34-945 017 501
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es	